

## 4.Funtsezko elkarteak

Gure enpresan beti talde lanean sinestu dugu. Enpresa osatzen dugun pertsonak eta enpresatik kanpo dauden erakundeak baina gurekin elkarlanean jarduten dutenak, unitate bakar bat bezala ulertzen ditugu. Denek misio eta helburu berdinak lortzeko elkarlanean jarduten dugu eta horrek egiten gaitu indartsu. Aliantza horiek ezinbestekoak dira aurrera egiteko, baita negozioa optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak erraztasunez eskuratzeko.

**-Hornitzaileak:** *Myriam Morenok* (bitxiak emango dizkigu). Madrilen dagoen bitxi denda. Berak diseinatuko ditu dure bitxiak, baita ere, pertsonalizatutakoak direnak. *Globomatikek* (GPSak emango dizkigu). Almerian dagoen denda teknologiko bat da eta online egingo dizkiogu eskaerak.

**-Finantzazio elkarteak:** *Berdintasuna Orain*, genero berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren kontra borrokatzen duen erakundea da eta gure babesleetako bat izango da, beste babesleetako bat Gasteizko udaletxea izango da.

**-Informatiko enpresak:** Glogomatik baita izango da gure enpresaren web orrialdearen sortzailea.

**-Autodefentsa kurtsoak:** Gasteizko Altafit eta Atlasren gimnasioetan lan egiten duten arlo honetako profesionalek eskeiniko dituzte guk antolatutako autodefentsa kurtsoak. Beraz, bi gimnasio hauekin etengabeko harrema izango dugu eta beraiei esker martxan jarri ahalko ditugu kurtsoak.

**-Segurtasun enpresak:** Gure denda zainduko duten kamerak, alarmak... Enpresa hori Securitas Direct izango da.

**-Terapia saioak:** Maialen Fernandez Martinek, Gasteizko psikologa batek egingo ditu sesioak.

**-Udaltzaingoa:** Gure bezeroetako batek bitxiaren botoia sakatzean bera laguntzera joango direnak izango dira.

**-Asesoria:** Tax Vitoria izango da gure asesoria, hauek guri ahalik eta aukerarik onenak proposatu eta gomendatuko dizkigute.